

# MUGARIK GABEKO EUSKARA ofizialtasuna!

## Muga

<Mugarri, munarri, zedarri, ertz, hegi, karel, izkina, kantail, kanto, azken, bukaera, amaiera...>

**Mugak euskarari.**

**Mugak euskaldunoi.**

**Mugak euskararen hiztun-komunitateari.**

**Mugak Euskal Herri euskaldunari.**

XXI. mendera hizkuntza bizi gisa iritsi izanagatik, **euskarak ez du etorkizuna ziurtatua**. Herio patua-  
ren zulo beltzetik ateratzea lortu dugu euskaltzaleok azken hamarkadetan egindako ahalegin itzelari  
esker. Ehunka urtetako atzerakadaren ondoren, euskarak argi printzak ikus ditzake lehen aldiz bere  
ibilaldi luzean. Munduan zehar pareko adibide gutxi aurki dezakegu, zoritxarrez gure ustetan ere. Hala  
ere, **badira indarrak**, eta ez txikiak, **euskara zulo beltzera itzularazi nahi dutenak**. Etorkizuna eta  
iragana ukatzen dizkietenak, baita euskararen lurraldeko eremu batzuen jatorri euskalduna ukatzen  
dutenak ere.

**Euskaldunok egunero-egunero pairatzen ditugu bigarren mailako hiztun izatearen ondorioak.**

Euskal herritarren belaunaldi berriok ez dugu ziurtaturik gure arbasoen hizkuntzaren ondarea jasotzea.  
Gaur da eguna ondare horren transmisioa jaso ez dugun helduok eskubide hori praktikara eramateko  
ordaintzen jarraitu behar izaten duguna. Atzerrian jaiotako euskal herritarroi ez zaigu inolako errazta-  
sunik ematen berezko hizkuntza dugun euskara ikasi ahal izateko eta euskal jendartearen gure ekarpe-  
narekin aberasteko; alderantziz, integrazioarako sarbide dugun euskara izkutatu egiten zaigu. Euskaraz  
normaltasunez funtzionatu nahi dugun administrazio publikoari behin eta berriz oroitarazten zaizkigu  
mugak non dauden: euskara ezin da lehentasunezkoa izan, nahi izanez gero euskara aukera gisa erabili  
ahal izango dugu, baina lehentasunezko eta derrigorrezko hizkuntza bakarrak frantsesa eta espainie-  
ra dira. Bide beretik, derrigorrean bermatu beharreko hizkuntza-eskubide bakarrak erdal hiztunenak  
dira. **Euskaldunon hizkuntza-eskubideak bigarren mailakoak dira, erdal hiztunen hizkuntza-es-  
kubideekiko subalternitatean**. Hala ere, euskaraz funtzionatu nahi duten administrazio publikoak  
gutxiengo dira Euskal Herrian. Instituzio gehienek erdarak dituzte lan-hizkuntzatzat, euskara arreta  
zerbitzu batzuetara murriztua delarik. Eremu funtzional guzti-guztietan euskara mendeko hizkuntza  
da, bigarren mailakoa. Lan munduan, hedabideetan, aisialdian, kulturean, zerbitzuetan... euskara erdaren  
mendeko egoeran aurkitzen da, kasu askotan balio sinboliko hutsa izatera mugatua. Euskaldunok gure  
egunerokotasunean hamaika ahalegin egin behar izaten dugu bizitzaren eremu guztietan euskaraz  
normaltasunez bizi ahal izateko. Izan ere, euskaraz bizi nahia hitzez eta ekintzez mila modutara adierazi  
dugun arren, euskaldunok egunero-egunero entzuten ditugu “En español, por favor” edo “En français,  
s’il vous plaît” esaldiak, arbitroak txartel gorria aterako digunaren mehatxupear.

**Hiztun-komunitate gisa ere desegituratu egin gaituzte.** Euskaraz sortu eta birsortu daitekeen ko-  
munitate osoa izan ordez, hiztun-irletan sakabanatuta aurkitzen gara. Hutsa hartu eta biziraun ahal  
izateko arnas-guneen bila irla batetik bestera. Gero eta osasuntsuago, hedatuz eta saretuz doazen  
arnas-guneak izan ordez, gero eta hertsatuago eta ahuleriak jota daude eremu euskaldunak. Gune  
euskaldunotan ere **derrigorrezkoak frantsesa eta espainiera dira, euskara hautazkotasunetik ha-  
rago nekez doan bitartean**. Kostata, ahalegin askoren ondoren, euskararen irizpideak araubideetan  
txertatzea lortu izan den kasu isolatuetan ere, egun batetik bestera gida-lerro horiek desagerrarazten  
dira lotsagabeki.

**Euskararen herria, Euskal Herria.** Hizkuntza ukatua duen herria. Herri zatitua, ukatua, menderatua. **Euskaraz bizitzea debekatzen zaion herria.** Erabaki ahal izatea ukatzen zaion herria. Ez soilik bere etorkizun politikoa, baita zein nolako hizkuntza-antolaketa izan nahi duen ere. Euskal herritarrok ezin dugu erabaki zein nolako etorkizuna eman nahi diogun euskarari, ezin dugu erabaki gure arteko hizkuntza-komuna euskara izatea, ezta zein nolako harremana izan nahi dugun gainontzeko hizkuntzekin ere.

**<Debekuak, ukazioak, zatiketak, bazterketak, isunak, irainak, epaiak, menderaketak, jazarpenak, oztupoak...>**

Argi printzak aipatu ditugu, mende askoren ondoren. Baina ortzi-mugan laino beltz mehatxagarriak ere indartzen ari zaizkigu. **Frantziar eta Espainiar estatuetakotako botereak ez daude prest euskararen berreskurapen eta normalizazio osoa gerta dadin.** Ez daude prest euskaldunok normaltasunez euskaraz bizi ahal izatera iritsi gaitezten; zer esanik ez Euskal Herri euskalduna egituratu dezagun uztera. Estatu bakoitzaren konstituzioak hertsadura nahikoa ez eta botere legegile eta araugileek urtero-urtero hamarnaka lege, arau, dekretu eta agindu onartzen dituzte espainiera eta frantsesaren nagusitasuna eta derrigortasuna ezarri bitzita politiko, sozial eta ekonomikoaren eremu guztietan.

**Frantziar estatuak, frantximankeria errepublikar tradizio onenean,** argi adierazi berri du: **Frantziako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa izango da.** Hizkuntza nagusi eta osoki funtzional bakarra frantsesa izango da. Euskara folklore eta lagunarteko hizkuntza da, eta horrela izaten jarraituko du; turistentzako erakargarri exotikoa eta euskaldunen arteko elkarrizketa hutsailetarako hizkuntza. Asko jota sinbolikoki afixaren batean edo politikariek ekitaldietan “egun on” eta “milesker” esateko erabiliko da. Hortik aurrera, burutik ez pasatzea ere hizkuntzaren normalizazio eta ofizialtasun osoa Euskal Herrian.

**Espainiar estatuak, bide beretik, nahiko dela erabaki du.** Azken 40 urteetan “hizkuntz erregionalekin” izan duen “eskuzabaltasuna” eskuetatik doakiola ondorioztatzen hasia da. Fisika irakasteko baliagarria ez zen baserritarren hizkuntza noranahikoa izatea lortu dugu ekinaren ekinez. Eta hori ezin dute onartu. Espainiar indarrek gero eta nabarmenago zalantzan jartzen dituzte euskarazko irakaskuntza, hizkuntza-eskakizunak edo euskararen aurrerabide oro. Eta hauek ez dira soilik ahozko mehatxuak, erabaki praktikoen aurrerapena besterik ez dira. Berrindartzen ari den jarrera glotozida horren lehen pairatzaileak katalan herritarrak izaten ari dira. Konstituzioaren 155 artikulua arma nagusitzat hartuta, administrazioan gaztelera berrezartzen ari dira eta hezkuntzan murgiltze-ereduarekin amaitzeko giroa prestatzen ari dira, bi adibide besterik ez aipatzearren. Baina, **155 artikulua euskararekin ere deklinatuko dute, euskaldunon aurka ekiteko erabiliko dute aurrera egingo dugun heinean.** Espainiar estatuak euskaldunok urrunegi joan garela erabakiko duen unean, gurekin ere errezeta berbera erabiliko dute, ez dugu zalantzarik.

**Jauzia: burujabetza.**

**<Eskubideak, bizikidetzak, herria, askatasuna, hizkuntza-komuna, aniztasuna, berreskurapena, normalizazioa, herri-gogoak, demokrazia linguistikoa...>**

**Etorkizuna euskarari.**

**Euskaraz bizi ahal izatea euskaldunok.**

**Euskaraz normaltasunez biziko den eta osoki egituratutako hiztun-komunitatea.**

**Euskal Herri euskaldun burujabea.**

**XXII. mendea jaiotzen ikusiko duten ehunka gutxiren arteko hizkuntzetako bat euskara izatea nahi dugu. Euskaldunok erabaki irmo hori hartu dugu.** Jakitun gara ez dela nolana hiko erabakia. Baina azken hamarkadetan aurreratzea lortutakoa ez dugu alferrik galtzen utziko. Irabazpidean jarri eta abiatutako bidea bururaino eramango dugu. Geldiezina zirudien euskararen atzerazko joera gelditzea lortu dugu. Eta horrek euskaltzaleak animoz berrindartu behar gaitu. Ez da makala lortutakoa, baina ez da nahikoa. **Jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa emateko beharra dugu eta horretarako**



## **baldintzak daude.**

Honek **euskarari etorkizuna eskaintzea** esan nahi du, beste edozein hizkuntza normalizatutik duen garapen eta etengabeko egokitze prozesu berdinarekin. Euskaldunontzat egunerokoan eta eremu guztietan baliagarria izango zaigun hizkuntza izatea. Gure berezko nortasun eta kulturaren transmisio normalizatua egingo duen hizkuntza. **Etorkizunak ekarriko dituen erronkei aurre egiteko tresna nahikoa** izango duen hizkuntza. Globalizazioak eta **indar homogeneizatzailei aurre egiteko babes nahiko** izango duen hizkuntza.

Horretarako, **ezinbestekoa izango dira euskaltzaleon grina eta ekimena**. Euskaraz bizitzeko nahia hedatzearekin batera, euskaraz bizi ahal izateko aukerak sortzean eta sortutakoak hautatzean bilakatuko dugu nahi hori. Finean, euskaldunoi ezartzen zaizkigun mugak, debekuak eta erdarara jotzeko ohiturak hankaz gora jarri eta **“euskaraz bizitzera goaz” aldarria iraultza sozial** bilakatzera goaz.

Euskaraz gara ala ez gara. Euskarak egiten gaitu euskaldun. Euskarak egiten gaitu herri. Euskararik gabe ez dago euskararen herririk, ez dago Euskal Herririk. Horregatik ozen diogu: **Euskal Herria euskaratik eta euskaraz eraiki beharra dago**. Euskal Herriaren alde daudela dioten **eragile politiko, sozial eta ekonomikei exigitzen diegu euskara euren jardueren erdigunean** kokatzea. Bai euskara lan-hizkuntza izanik, bai euskararen normalizazioa ezinbestean aplikatu beharreko irizpidetzat harturik.

Hatsa hartu eta biziraun ahal izateko arnas-gune irlak hedatu eta saretu behar ditugu. Ez soilik geografikoak, baita eremu administratibo, sozial eta ekonomikoak ere. Irla isolatuak uhartedi zabala osatzeraino biderkatuko ditugu, ondorenean euskararen lurraldea kontinente bihurtzeko.

**Euskal Herria berreuskalduntzea da euskaltzaleon lanaren iparra**. Herri gisa eskubidea dugu hori lortzeko. Baina, era berean, hori da euskal herritarron borondate nagusia. Borondate demokratiko eta guztiz zilegia.

Hori erdiesteko **euskararen berreskurapena eta normalizazioa azkartu eta bururaino eraman** behar dugu jendartearen eremu guztietan:

- > Euskararen **ezagutza unibertsalizatu** behar dugu, belaunaldi berriei osoki euskararen transmisioa ziurtatzetik hasita.
- > Eremu funtzional guztietan euskararen erabilera orokortzeko planak indarrean jarri behar ditugu, Horiek guztiak Euskal Herria berreuskalduntzeko **plan estrategiko nazionalaren** logikaren pean izango direlarik.
- > Egitasmo estrategiko horretarako mota guztietako **bitarteko nahikoak** esleitu behar dizkiogu.
- > Prozesu honi guztiari babes eta sustapen juridikoa emateko eta euskal herritarron hizkuntza-eskubideak bermatzeko, **lege-onarpen egokia** indarrean jarri behar dugu. **Euskara berezko hizkuntza, ofiziala, lehentasuneko eta ezagutu beharrekoa** izendatzetik hasita. Euskal Herriko eremu administratiboen estatus politikoak aldatzeko abiatuta dauden edo abiatuko diren ematen prozesuetan eskakizun hauek erdigunean izatea exigitzen dugu.

Baina hau guztia bere osotasunean garatu ahal izateko **ezinbesteko faktore bat dago: burujabetza**. Burujabetza Euskal Herriko biztanleok zein nolako **hizkuntza-politika garatu** nahi dugun erabaki eta indarrean jarri ahal izateko. Burujabetza **hizkuntza-eskubideak bermatu** ahal izateko. Burujabetza inolako mugarik gabe **euskaraz bizi ahal** izateko. Burujabetza Euskal Herriaren **berreuskalduntzea azkartu eta bururaino** eraman ahal izateko. **Burujabetza kolektiboa** herri gisa eta **burujabetza indibiduala** euskaldun aktibo gisa.

Zoritxarrez, historiak zein azken garaian erakutsitako jarrerak argi adierazten digute espainiar eta frantziar estatuak ez daudela prest hala edo hola euskal herritarroi hizkuntzaren gaineko burujabetza osoa emateko. Mendeetan zehar adierazi duten inposizio eta menderakuntza politiketan temati jarraitzeko borondate osoa dute. Beraz, horri aurre egiteko euskaltzaleok ez dugu beste irtenbiderik: ahalduntzea eta desobedientzia. **Desobedientzia ariketa erraldoia egiteko unea** dugu, beharra dugu eta baldintzak badaude. Hasteko, euskaraz bizitzea da euskaldunok egin dezakegun lehen desobedientzia-ekintza.

Horrekin batera **euskararen borroka herriz herri eta auzoz auzo biderkatzea ezinbestekoa da**. Bai, borroka. Euskararen borroka. XXI. mendean euskarak bizirik badirau urteetan egindako borrokari esker izan da. Euskal Herriaren berreuskalduntze osora iristeko euskaltzaleok jarraitu beharko dugun borroka.

**Euskarari eta euskal herritarroi ezartzen zaizkigun mugak gainditu eta euskararen normalizazioan jauzi egiteko burujabetza eskuratzera goazela ozen aldarrikatzeko datorren martxoaren 24an manifestazioa egingo dugu, Iruñeako Autobus geltoki zaharretik abiatuta. Euskaltzaleei egun horretan manifestazioan parte hartzera dei egiten diegu.**

Era berean, **euskaltzaleei deialdiarekin bat** egiten dutela adieraztera ere dei egiten diegu, **sare sozialetan “Mugarik Gabeko Euskara” adieraziz bideoak edo argazkiak eskegiz.**

